

2009ko martxoaren 4ean UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA OHIZKOAREN AKTA.

2.Zk.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18:30tan, Udalbatzarra bildu da, idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN jauna

ZINEGOTZIAK :

- 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAL anderea
- 2.- MAITANE ARRILLAGA ALDALUR anderea
- 3.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ jauna
- 4.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE anderea
- 5.- ANTXON GOMEZ LORENTE jauna
- 6.- NAIARA ESNAL HUEGUN anderea

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI andereak

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko bileraren akta

Ez da aztertu gai hau.

2.- Aisialdiko txabolen ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena eman eta jendaurrean jarri

Alkateak proposatu du "aisialdiko nekazal txabolen ordenantza" aldatzea, honako artikuluei dagokienez.

Lehen aldaketa, 5.artikuluari dago, lursailen gutxienerako azalera eta estalpean gehieneko azalera direla eta. Hain zuzen ere, c) atalari dagokionez, abeltzaintza arloan, honela gelditu da testua, aldaketa ondoren:

"*Abeltzaintza:*

- *Larra-behiak eta abereak:*

- *Azalera minimoa: 20.000 m²*
- *Eraikigarria: buruko 7 m², gehienez 70 m²*

- *Ardiak, txerri eta antzekoak:*

- *Azalera minimoa: 20.000 m²*
- *Eraikigarria: buruko 1,5 m², gehienez 70 m²*

- *Hegazti, untxi eta antzekoak:*

- *Azalera minimoa: 500 m²*
- *Eraikigarria: buruko 0,5 m², gehienez 15 m²*

Bigarren aldaketa, 8 artikuluan, eraikinen baldintzak direla eta, doi-doi, gailurrerainoko altueraren inguruan datza. Testua, aldaketa honekin, honela gelditu da:

“Gailurrerainoko altuera: 3 m.takoa gehienez. Kasuan kasu ikusiko da eta Udal Teknikariaren txostena kontutan hartuko da. Abeltzaintzarako eraikitzen diren txaboletan, hegazti, untxi eta antzeoetarako ezik, 4 m.-raino luzatu ahal izango da gailurrerainoko altuera, beti ere Udal Teknikarien txostenaren arabera.”

Hirugarren aldaketa, 10. artikuluan, 4 atalean, dago, baldintza orokorrak direla eta. Aldaketa ondoren honako paragrafo hau gehitu da:

“4.- Eskatzaileak bi jarduera aurrera eraman nahi izanez gero, eraikinaren azalera jarduera bakoitzeko ez dira gehituko, baizik eta azalera handiena baimentzen duen jarduerak ezartzen duena emango da ontzat.”

Hiru aldaketa hauen espedientea hilabetez egongo da jendaurrean iragarkia Aldizkari Ofizialean argitaratuz geroztik. Alegazio ezean, behin-betiko onartutzat joko delarik, 7/85 legeko 70.2 artikuluari jarraikiz.

Idazkariak gogorarazi du, aldaketa hauek, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2004ko otsailaren 19an argitaratu zen jatorrizko Ordenantza osatzen dutela eta baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2008ko maiatzaren 16an argitaratu zen lehen aldaketa ere, 9. artikuluari dagokionez (fidantza dela eta).

BOZKETA: Alde: denak

AKORDIOA: Aiako Udalbatzak, aho batez, onartu du batetik, “ Aisialdiko txabolen udal ordenantza” –ren aldaketari hasierako onarpena ematea, honako arloei dagokienean: 5. artikuluko c) atala (lursailen gutxieneko azalera eta estalpeen gehieneko azalera) , 8 artikulua (gailurrerako altuera) eta 10 artikuluko 4. atala (baldintza orokorretan paragrafo berria) eta bestetik, jendaurrean 30 egunez jartzea, alegazio zein iradokizunak jaso ahal izateko.

3.- 9/2008 Errege dekretu legeko " udal inbertsiotarako estatu fondo" bidez finantziatuko den udal eraikinaren eraberritze obraren kontratazioa abiatzea onartu, presaz eta lehiaketa irekiz eta baldintza ekonomiko-administratiboen plegua onartu.

Idazkariak laburbildu du kontratazio hau arautuko duen baldintza juridiko-ekonomiko-administratiboen baldintza plegua. Besteak beste, arlo hauek azpimarratu ditu:

- Epea: gehienez ere, 6 hilabete, bi fasetan zatituta
- Lizitazio prezioa: 323.712.-euro (BEZ barne)
- Parte-hartzeko baldintza gutxieneko bereziak:
 - 1) Gaitasun tekniko profesionala ziurtatzeko gutxienez " antzeko hiru obra burutuak izatea azken bost urtetan".
 - 2) Gaitasun finantz-ekonomikoa ziurtatzeko azken hiru ekitaldietako negozio bolumenari buruzko adierazpena
 - 3) Langile berriak kontratatu behar izanez gero, langabezia daudenak izan beharra.
- Esleipen prozedura: irekia eta presazkoa
- Esleipen irizpideak: Lau atala finkatu dira:
 - 1) Eskaintza ekonomikoa: 30 puntu
 - 2) Lan esperientzia eta baliabide teknikoak: 30 puntu
 - 3) Giza baliabideak: langabezia duden kontratudun berriak: 30 puntu
 - 4) Exekuzio epea: 10 puntu
- Eskaintzak aurkezteko epea: 13 egun natural
- Kontratazio mahaiaren eraketa eta funtzionamendua
- Udalbatzaren behin-behineko eta behin-betiko esleipen erabakiak
- Behin-betiko berme bat : esleipen-kopuruaren % 5-eko zenbatekoan eskatuko zaio esleipena jaso duen lizitatuileari.
- Prezioak finkoak dira
- Zigorrak: lau kontzeptuen ondorioz jar daitezke.
 - 1) Exekuzio eta partehartzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik
 - 2) Kontratua desegokiro betetzeagatik
 - 3) Esleipen irizpideak ez betetzeagatik
 - 4) Epeak ez betetzeagatik

Azkenik, izapidetza dela eta, plegu hau jendaurrean izango da 13 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein Aiako web orriko " kontratatzaile soslai edo profil" atalean argitaratuz geroztik.

BOZKETA:

- Alde: 5 bozka (Igor Iturain Iburguren jauna, Maria Jesus Arruabarrena Esnaola anderea, , Ander Arrillaga Albeniz jauna, Mari Karmen Egurza Agirre anderea, Naiara Esnal Huegun anderea)

- Aurka: 2 bozka (Maitane Arrillaga Aldalur anderea, Antxon Gomez Lorente jauna)
Aurkako bozka honen arrazoi gisa azaldu du Gomez zinegotziak udalaren eraikina eraberritzea baino lehenago, badela herriarentzako onuragarriagoa den bestelako egitasmorik.

ERABAKIA:

Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Aiako udal eraikinaren eraberritze obrari dagokion baldintza juridiko-ekonomiko-administratiboen plegu-agiria.

4.- Tokiko Gobernu Batzarraren zenbait erabakiren berri ematea

Idazkariak gogora ekarri du Gobernu Batzarraren 8 /2009 erabakia, urtarrilaren 14koa. Bertan, Armendigain sl-ri, Etxesal sl-ri, Aia lantzen s.a.-ri eta Sagain Gestion sl-ri dirulaguntza luzatutzea xedatu zen Armendigain sektoreko biribilgunea exekutatzegatik. Zehatz-mehatz honela zioen Erabaki hark:

“ONDORENGOA IKUSIRIK,

1.- Aiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko uztailaren 5ean hitzarmen bat izenpetu zuten, Armendi-Gain sektoreko biribilgunea exekutatzeko diru ekarpenari buruz. Honen arira, Foru Aldundiak Udalari 251.250.-euroko dirulaguntza luzatzeko konpromezua hartu zuen.

2.- Armendi-gain sektoreko biribilgunea bertako lurjabe-sustatzaileek egin beharreko urbanizazio obra zen, Plan Partzialak, Urbanizazio proiektuak eta borondatezko birpartzelazio proiektuak ezarri bezala.

3.-2007urteko aurrekontuetan 422.533.00.21.2007 partida aurrikusi zen Armendigain sektoreko biribilgunea kontzeptupean eta Udalbatzak, aho batez, onartu zuen aurrekontu hori 2006ko abenduaren 19an. Ondoren, 2007ko urriaren 30ean, kreditu aldaketa bidez, Udalbatzak 250.000.-euroko zenbatekoa ontzat eman zuen.

4.- 2008ko azaroaren 19an Armendi-Gain sektoreko sustatzaile diren Aia Lantzen S.A. elkarteak, Sagain Gestión SL-k eta Armendigain SL-k dirulaguntza hori jarraian adierazitako eran banatzeko eskaria luzatu zioten Aiako Udalari:

- a) Aia Lantzen S.A.-ri 34.270,50.-euro
- b) Sagain Gestión SL-ri 76.932,75.-euro
- c) Armendigain SL-ri, 140.046,75.-euro (Honetatik zati bat, 64.557,44.-euro, alegia, Etxesal SL-ri ordaintzeko eskatu du enpresa sustatzaile honek, beraz, Armendigain SL-ri, 75.489,26.-euroko dirulaguntza legokioke)

5.- Armendigain SL enpresak zenbait zor du Udalarekin honako kontzeptu eta kopuruetan:

- a) Gobernu Batzarraren 212/2008 erabakiaren ondorioz, Armendigain kaleko 2 eta 3 atarrietako sotoetan 15 garajentzako irekiera lizentzia ematearen ondorioz, alegia, 1.500.-euro.
- b) Gobernu Batzarraren 211/2008 erabakiaren ondorioz, Armendigain kaleko 2 eta 3 atarrietako 12 etxebizitzentzako lehen erabilera lizentzia ematearen ondorioz, alegia, 18.673,95.-euro.

6.- Alkateak – edo honen lekuan Tokiko gobernu batzarrak- eskuduntza du, 7/85 legeko 21.1.f) artikuluari atxikiz gero, batetik, diruzaintzako eragiketak burutzeko aurreko urtealdian likidatutako sarrera arrunten % 15-a (2.255.672.-euroren %15-a, alegia) gainditzen ez duen zenbatekoan (hau da, 338.350.-euro, guztira, urte osorako) eta bestetik, gastuak xedatzeko, aurrekontuaren arabera, beti ere, baliabide arrunten % 10-a (2.255.672.-euroren % 10-a, alegia) gainditzen ez badu kopuruak (hots, 225.567.-euro), urtealdi osoko zenbatekoa kontuan hartuz. Zenbateko hauetaz gain Udalbatza da eskudun gastu xedapenok egiteko.

GOBERNU BATZARRAK ERABAKI DU:

BAT: Armendigain SL enpresak udalarekin dituen bi zor horiek konpentsa ditezten baimentzea Udalak enpresa honi helerazi behar dion dirulaguntzarekin.

BI: Armendigain sektoreko biribilgunea egiteagatik honako dirulaguntzak luzatzea zerrendatutako enpresei:

- a) Aia Lantzen S.A.-ri 34.270,50.-euro
- b) Sagain Gestión SL-ri 76.932,75.-euro
- c) Armendigain SL-ri, 55.315,31.-euro
- d) Etxesal SL-ri 64.557,44.-euro

HIRU: Udalbatzarrari dirulaguntza hauen berri ematea, berretsi dezan.”

Ebazpen horretako hirugarren puntuan ageri bezala Udalbatzari dagokio bertan jasotako ordainketa berrestea.

BOZKETA: Alde: 5 bozka; Aurka: 0 bozka; Abstentzioa: 2 bozka

AKORDIOA: Udalbatzak, gehiengoz, berretsi du Armendigain sektoreko biribilgunea egiteagatik honako dirulaguntzak luzatzea zerrendatutako enpresei:

- e) Aia Lantzen S.A.-ri 34.270,50.-euro
- f) Sagain Gestión SL-ri 76.932,75.-euro
- g) Armendigain SL-ri, 55.315,31.-euro
- h) Etxesal SL-ri 64.557,44.-euro

5.- Galdera-eskaerak

Gomez zinegotzi jaunak gogoeta egin du "andre-gizonen berdintasun legea" (Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 legea) 2005eko martxoaren 2an indarrean sartuz geroztik udal eraikinaren sotoan dagoen " Alkar" elkartearekin udalak duen alokairu kontratua ez ote litzatekeen zalantzan jarri behar. Gaineratu du, abagune ona izan daitekela udal eraikinaren eraberritze obra-aldia probestea, izan ere, lanen eraginez, lokala itxita egongo baita. Proposamen zehatza zera da: *"Udalaren aldetik, elkarteari, ofizialki, legearen berri eman eta ulertarazi udalaren erantzunkizun zuzen-zuzena dela "andre-gizonen berdintasun legea" betetaraztea bere jabetzakoa den lokal batean eta ondorioz, dagozkion urratsak eman ditzan aholkatu".*

Alkateak erantzun du, ondo derizkiola gogoraraztea elkarteari " parekotasun legea" hor dagoela, baina gai hau formalki gaurko udalbatzaren zerrendan sartua ez dagoenez, ez dela ez prozedura egokia ez une aproposa, ofizialki, oraingoan, inolako idatzirik elkarteari helerazteko.

Bileran esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2009ko apirilaren 16an.

IGOR ITURAIN IBARGURENek

MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNALek

MAITANE ARRILLAGA ALDALUR-ek

ANDER ARRILLAGA ALBENIZEk

MARI KARMEN EGURZA AGIRREK

ANTXON GOMEZ LORENTEK

NAIARA ESNAL HUEGUNek

Idazkari-kontuhartzaileak.